

Energia garbia kaltegarria izan daiteke zenbait herrialdetan

HAINBAT IBAIK zeharkatzen dute Myanmar. Irriwaddy eta Salween dira nagusiak, eta herrialdeko biztanle gehienak euren alboetan bizi dira. Ura, arrantza eta ekonomia ibai horiek osatzen dituzten ekosistemen menpekoak dira.

2009an, Irriwaddy ibaia-
ren iparraldean 6.000 megawatteko potentziako eta 3.000 milioi euroko kostua izango zuen urtegia eraikitzen hasi ziren. Urtegi horretan sortuko zen energiaren %90 Txinara esportatzekoa zen, baina proiektua 2011n eten zuten, inguruko herritarren protestak zirela eta. Hala ere, enpresa eraikitzaileak presio egin du, eta horren ondorioz asmoa dago datorren urtean lanei ekiteko berriro.

Salween ibaia, berri, hamahiru zentral hidroelektriko eraiki nahi dituzte. Horietako sei Myanmarren, gainerakoak Thailandian eta Txinan. Esan gabe doa milaka urtetan sortutako ekosistemak, biodibertsitatea eta bizi-ohiturak iraulita gera daitezkeela lan horien ondorioz. Inork gutxi aipatuko duen arazoa. ■



FELIPE MÉNDEZ-CC BY-SA

Zentral hidroelektrikoa.



Plastikozko poltsen erabilera murriztea helburu European

FABRICALO.NET



EUOPAR BATASUNeko biztanle bakoitzak 200 plastikozko poltsa erabiltzen ditu batez beste urtean. Hainbat ikerketaren arabera plastikozko poltsa baten erabilera-iraupena 25 minutukoa da eta urtero kontsumitzen ditugun poltsen pisua 750.000 tonakoa da, hau da, 625.000 autok dutena beste. Poltsa bat birziklatzeko chunka urte behar izaten dira. Paperak aste batzuk baino ez ditu behar, eta aluminioak 100 urte.

2019rako, EBk %80ko murrizketa lortu nahi du plastikozko poltsen kontsumoan. Horretarako, Irlandaren adibidea hartuko du eredu: urte gutxian, pertsonako kontsumoa 328 poltsatik hogeira igaro da, zerga araudi gogorra ezarriz. ■



Nola sortu ziren plaka tektonikoak?

Mende erdi baino gehiago da plaken tektonikaren teoria frogatu zela, baina orain arte inork ezin izan du azaldu nola eratu ziren plaka horiek. Berriki, aztarna on bat eman dute AEBetako eta Frantziako zenbait geologok. Esan dutenez, orain dela 4.000 milioi urte inguru sortu ziren plakak, presioaren eta tenperaturaren ondorioz lurrazalean ahulgu-neak agertu zirenean.

ttiki.com/64306
(Euskaraz)

Bizia sortu aurretik baziren prozesu metabolikoak

Bizia orain 4.000 milioi urte inguru sortu zen Lurrean, artean atmosferan oxigenorik ez zela. Hala ere, hori baino milioika urte batzuk lehenago zelularik gabeko prozesu metabolikoak gertatzen zirela ondorioztatu du Cambridgeko Unibertsitateko ikerlari talde batek.

ttiki.com/64307
(Gaztelaniaz)

Jupiterren orbana desagertzeaz?

Jupiterrek duen orban erraldoiaren diametroa 15.000 kilometro ingurukoa da. Orain hamar urte, aldiz, 18.000 kilometrotik gora-koa zen. Antza, diametroa txikitzearekin batera errotazio abiadura handitzen ari da. Edonola, astronomoek diote oso zaila dela haren bilakabidea zein izango den igartzea.

ttiki.com/64309
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16